

# 37.

# Koldo Mitxelena

LITERATURA

LEHIAKETA

2026


8-18 urte bitartekoak

olerkia  
ipuina  
*komikia*  
bertsoa  
*mikroipuina*



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Euskara

[www.donostiaeuskaraz.eus](http://www.donostiaeuskaraz.eus)



## AURKEZPENA

Koldo Mitxelena Literatur Lehiaketa 37. ediziora iritsi da. 2025-2026 ikasturtea ere oso emankorra izan da. Aurten guztira 1058 lan aurkeztu dira.

Sariak banatzeko ekitaldia udaletxeko Udalbatza Aretoan izango da maiatzaren 23an. Bertan izango ditugu saridunen senideak, lagunak eta irakasleak, udal ordezkariez gain.

Liburuxka honetan 37. edizioan saritutako lanak bildu ditugu, 23 guztira: 5 komiki, 4 olerki, 6 ipuin, 3 bertso eta 5 mikroipuin. Amaieran epaimahaiaren aipamen berezia merezi izan duten lanen zerrenda ere argitaratu dugu, aurten 27 lan, edizio honetan parte hartu duten 22 ikastetxeren izenekin batera.

Aurtengo edizioan parte hartu duzuen guztioi egindako lana eskertu eta bide horretan jarraitzera animatu nahi ditugu, gaurko ikasleak biharko idazle, zinemagile, ipuin kontalari edota bertsolari izango baitzarete.

Eskertzekin jarraituz, epaimahaikideen (Iñaki Martinarena “Mattin” komikigilea, Beñat Gaztelumendi bertsolaria, eta Yolanda Arrieta, Ana Malagon, Inazio Mujika eta Arantxa Urretabizkaia idazleak) lana nabarmendu nahi dugu. Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi ikastetxeak eta ikasleak parte hartzera animatzen dituzuen irakasleak.

Donostian, 2026ko maiatzaren 23an

## OLERKIAK

**Nahia Sanchez Iturria (10 urte)**

*Nire eguneroko bizitza*

C kategoria

**Asier Oskila Etxegia (12 urte)**

*Heriotza*

C kategoria

**Ane Ibarburu Asensio (12 urte)**

*Isiltasunaren arnasa*

D kategoria

**Maria Teresa Benegas Ayuso (16 urte)**

*Txikia*

E kategoria

## Nire eguneroko bizitza

Kaixo eguzki horia  
nire lagun beroa  
goizean esnatu naiz  
ametsetan oraindik noa

Amak deitu nau izenez  
jaiki ohetik azkar  
baina oinak hotz-hotzak  
lurrean dantzan ezin jar

Gosarian esnea  
bibote zuri fina  
barre egin dut ispiluan  
pailazo txiki bana

Eskolara bidean noa  
motxila pixka bat handia  
barruan liburu asko  
buruan ideia txikia

Lagunak ikusi ditut  
denak agur eginda  
bihotza salto egiten  
pilotaren modura minda

Gelan koloreak bizi  
hormetan marraztuta  
irakasleak dio isilik  
baina nik burua beteta

Arkatza gorria daukat  
urdira eta berdea  
paperean etxe bat  
tximinia kearekin doa

Jolas ordua iritsi  
patoria korrika  
korrikan egin dut barre  
izerdia kopeta bustita

Erori naiz pixka bat  
belauna gorri-gorria  
lagun batek esan dit  
ez da ezer aurrera tira

Etxera bueltan noa  
arratsalde lasaia  
zopa bero-beroa  
sukaldean magia

Nire gelan panpinak  
hitz egiten didala  
gauetan sekretuak  
belarrira esanda

Ilargia agertu da  
zeruan begira kolore  
izarrak keinuka ari  
nik ohean daukat umore

Katua miauka dabil  
ametsen atean  
ni pixkanaka lokartu  
ipuin baten barruan

Gaurko eguna normala  
baina polita izan da  
gauza txikiak baina  
poza egiten didate ba

hamar urte besterik ez  
baina bihotz handia  
mundua oso zabala  
nik marrazten dut txikia

Bihar berriro eguzkia  
berriro lagun mina  
berriro orri zuri bat  
nire letra arraro fina

Poema hau idatzi dut  
bihotzetik aterata  
errimak dantzan doaz  
soka batean lotuta

Orain begiak ixten  
amets politik gaur gaua  
gauza onak pentsatzen  
baina ere dago araua

## Heriotza

Oso zaharra naiz,  
heriotza gertu ikusten dut.  
Ohera sartzen naiz,  
logura dut.  
Begiak ixtean,  
lo hartzen dut.  
Amesten ari naiz,  
jadanik esnatu nahi dut.  
Ez dakit non nagoen,  
irten nahi dut.  
Lainoz beteta dago,  
irten behar dut.  
Ez dut ezer ikusten,  
berriz ikusi nahi dut.  
Garrasika hasten naiz,  
laguntza eskatzen dut.  
Itzal bat agertzen da,  
laguntza eskatzen dut.  
Kaputxa bat du,  
nor den galdetzen dut.  
Niregana hurbiltzen da,  
beldur asko dut.  
Kaputxa kentzen du  
eta ikusten dut...  
HERIOTZA

### Isiltasunaren arnasa

Goizeko lainoan jaio zen eguna  
hitzik gabe, baina beteta.  
Zuhaitzek entzuten dute dena  
haizeak sekretuak daramatza.  
Urrats bakoitza galdera bat da,  
Bihotzak ez daki non gelditu.  
Baina argiak beti aurkitzen du bidea  
Itzalen artean ere.  
Eta nik, isilik  
zure izena ikasten dut  
denborak ahaztu ez dezan.  
Isiltasuna ez da hutsunea  
Baizik eta gertatzen den guztia  
Baina gure pausuek memoria idazten dute,  
Azalera gelditu diren arrastoekin  
Inork ikusten ez dituenekin.  
Arnasa hartu,  
Eta zu bezalaxe,  
Egon.  
Isiltasuna ez da hutsunea,  
Arnasa hartzen duen lekua baizik.  
Hitzek itzala dute hemen  
Eta argiak poliki ikasten du  
Urrats bakoitzean  
Lurra gogoratzen da  
Olatuek bai pazientzia.  
Denbora belar artean etzaten da  
Izenen pisua hartuta  
Begirada batek irekitzen du atea,  
inork ikusten ez duen tokira.  
Han, beldurra txikia da,  
eta ausardia isila.  
Gauak izarrak zenbatzen ditu,  
zuk zure taupadak.  
Eguna heltzen denean,  
argiak ez du oihukatzen.  
Eskuak elkartzen dira,  
maparik gabeko bidean.  
Oroitzapenek ez dute zaratarik,  
baina beroa bai.  
Hemen geratzen naiz,  
zu bezala,  
egon.

## Txikia

Batzuetan galtzak handiak dira,  
egun horietan zerbait irabazi dudala  
sentitzen dut;  
beste batzuetan  
gorputzari itsatsiak daude,  
haserrea baino ez dut sentitzen  
hori gertatzen denean.

Batzuetan kontrola dudala sinesten dut,  
beste batzuetan  
egia ez zela konturatzen naiz.

Batzuetan ispilua gustatzen zait;  
beste batzuetan  
ispilurik gabeko gela bat nahiko nuke,  
agian, horrela zenbatzeari utziko nioke.

Batzuetan lehoiak barruan ditut,  
gosez,  
orroka ezin geldirik;  
beste batzuetan baleak ditut,  
dagoen guztia okupatuz.

Batzuetan kontrola deitzen diot beldurrari;  
beste batzuetan argi ikusten dut  
kartzelari askatasuna deitzen ari naizela.

Batzuetan zenbakiak  
zenbakiak besterik ez dira,  
paper gaineko marka hotzak;  
beste batzuetan zenbakiak  
ikusten dudan guztia dira,  
kontrolaren izenean.

Batzuetan nire ahoaren usaina  
suge baten pozoiaren antzekoa da,  
eta horrela itxita mantentzen dut;  
beste batzuetan  
nire ahoa hitz egiteko  
behar dudala konturatzen naiz.

Batzuetan ohartzen naiz gaixotasunak  
desagertuta nahi nauela;  
beste batzuetan ahoa estaltzen dit,  
“ez nazazu gaixotasuna deitu” esanez,  
“zure laguna bainaiz”.

Batzuetan pixka bat gehiagorekin  
amets egiten dut;  
beste batzuetan galdera batekin lo hartzen dut:

Zenbat desagertu behar naiz  
“nahikoa” ez dela existitzen konturatzeko?

## KOMIKIAK

**Unai Ilzarbe Elorza (9 urte)**

*Diego haserretu egin da*

B kategoria

**Ibai Acha Cuesta (11 urte)**

*Museoaren lapurreta*

C kategoria

**Irati Salsamendi Artetxe (12 urte)**

*Egunsentia*

D kategoria

**June Egüés Muerza (13 urte)**

*Erregearen erorketa*

D kategoria

**Erik Agirre Goienetxe (15 urte)**

*Aspertuta*

E kategoria

***DIEGO HASERRETU EGIN DA***


**Unai Iizarbe Elorza**

B kategorian

IRABAZLEA

# DIEGO HASERRETU EGIN DA!

BAZEN BEHIN 2023. URTEAN, TAILANMIAN,  
DIEGO IZEMEKO PERTSONA BAT LO-KULUXKA  
EGITEN ZEGOELA...




***MUSEOAREN LAPURRETA***

**Ibai Acha Cuesta**

C kategorian


IRABAZLEA



# MUSEOAN LA PURRETA







***EGUNSENTIA***


**Irati Salsamendi Artetxe**

D kategorian

IRABAZLEA



EZIN DUT EGUNERO  
LANERA BERANDU  
IRITSI...  
ALBAK IKASTOLAZ  
ALDATU BEHARKO  
DU



Benga Alba, lagunak egiteko  
ordua!



- $2 \times 3 = 6$
- $2 \times 4 = 8$
- $2 \times 5 = 10$
- $2 \times 6 = 12$
- $2 \times 7 = 14$
- $2 \times 8 = 16$
- $2 \times 9 = 18$



Lasaijondo egongo  
Zara hemen



- $2 \times 3 =$
- $2 \times 4 =$
- $2 \times 5 =$



- $1 \times 3 = 6$
- $2 \times 3 = 6$
- $2 \times 4 = 8$
- $2 \times 5 = 10$
- $2 \times 6 = 12$
- $2 \times 7 = 14$
- $2 \times 8 = 16$
- $2 \times 9 = 18$

$2 \times 3 =$   
 $2 \times 4 =$   
 $2 \times 5 =$   
 $2 \times 6 =$

Kaixo, Maya  
 Maiz eta  
 mutua, maiz

ab ma no al is ro

Ez lotsatu!  
 Hori oso guay dago  
 horrela gainera  
 zeinu hizkuntza  
 ikasiko dut eta  
 hizkuntza sekretua  
 bezala izango  
 da!

Nire laguna  
 irudi du

Alba eta  
 Maya...

$2x$   
 $\sqrt{1}$   
 $00$   
 $H=x:2$

# Desgaitasuna ez da laguntasunaren oztopo

Albak zeinu hizkuntza  
 ikasi zuen

Hori zer da?

Horrela?

***ERREGEAREN ERORKETA***


**June Egüés Muerza**

D kategorian

IRABAZLEA

# ERRIGEAREN

# ERORKETA



# HITZAURREA

Lehenik eta berin, istorio hau, Antzinaroon kokatuta dago. Garai horretan, zibilizazioak sortzen hasi ziren, adibidez; Erroma, Egipto, Txina, baina gurea, Grezian kokatzen da, Antzinako Grezia zibilizazioan.

Gure istorioko pertsonaiak, honako hauek dira: Filipo orakuloa, Alexandro Jakintsua, Teseo erregea, eta bere alaba, Helena.

Gure istorioan erri batek agertu arren, Antzinako grezia zibilizazioak ez zuen erregirik, eta hori izango da gure istorioaren gakoa. Komela antolatuta baitzeuden: ez zegoen agintzen zuen nagusirik, herria zen boterea zuena, bozkatetarik eginez aukeratzen zuten agintaria. Urte batzuk geroago, berriro bozkatzen zuten. Eskulaburuk herriaren menpe zeuden. Hori demokrazia deitzen zaio.

Sinesmenaren aldetik, erlijio politeista zuten. Egoitza Olimpo mendian zuten. Hainbat jainko gutxiak zituzten ... Adibidez: Zeus. Elkarri: istorio asko kontatzen zituzten, eta Olimpiadak asmatu zituzten. Greziarrei asko gustatzen zitzaizkien pinturak erabiltzea, eskulturak egitea, eta zeramikazko ontziak egitea eta apaintzea.

Teknologiari dagokionez, filosofo asko egon ziren garai horretan. Haien artean: Aristoteles, Pitagoras, Euklides, Hipokrates eta Platon, adibidez. Ekonomiari dagokionez, garia, ardoa, eta olioak erabiltzen zuten.

Esker dugun bezala, gure istorioa berezia da, izan ere, zer gertatuko litzateke demokrazia asmatu izan ez bailitz? Erantzuna jakiteko, gure komikiaren omaldieta murgildu beharke gara.

Erregea eta bere orakulua lagunak dira, gaiztoak. Erregearen alaba onada.

Nola dira hain gaiztoak?!



KAR KAR KARI

EZ ZEGOEN  
DEMOKRAZIARIK,  
ETA DIKTADURA BAT  
ZEN

Bidaia zaila edukiko  
dut, naize asko  
dago!

Errisgeak, hermtarrak exekutatze,  
ditu, eta bere alabak mespreziuz  
begiratzen dio, eta ines egiten  
du.


Ni banaa...




Ondoko hezian...



Olinpo mendian...



Bidetik, hilerrri bat ikusten du,  
eta hilobiak begiratuta,  
bere amaren izena ikusten du,  
Ariadna.



Ariadna  
erregina

Baina nire aitak esaten  
zidan nire ama bidaiari  
luzer batean zegoela...



Eta igual 30  
urte torratuko  
zituela...

Zer gertatu da  
hemen??


Zergatik ezkutatu dit hiru nire aitak??

nenditik jarraitzen du...

Heri osoa bildu,  
eta eragearen  
aurka botokatu!!



Alexandro Sakintzuak  
esan zuenari kasu eginda...





ETA DEMOKRAZIA SORTU ZEN

URTE BATZUK  
GEROAGO...



Zer

gertatuko

gizarteke

demokrazia

asmatu

izan

~~EZ~~


balitze

***ASPERTUTA***

**Erik Agirre Goienetxe**

E kategorian

IRABAZLEA



## BERTSOAK

**Aimar Pineda Labaka (10 urte)**

*Nire bihurrikeriak*

B kategoria

**Julen Marin Lacarta (11 urte)**

*Egun txarra*

C kategoria

**Harri Arin Grijalba (12 urte)**

*Ikastolako egunak*

D kategoria

## Nire bihurrikeriak

1.  
Txiki-txikitatikan  
izan naiz basati.  
Bihurrikerietan  
ari naiz ederki.  
Igogailuak niri  
bi hatzak ebaki.  
Egin behar ez dena  
egiten dut beti!
2.  
Nahiz eta ez dudan nahi  
bihurtzen naiz satan.  
Ilea moztu nuen,  
ez nabil txantxetan.  
Depilatu ere bai  
nire bi hanketan.  
Jarri zitzaidalako  
suduraren puntan.
3.  
Kolpeak txarrak dira  
hartzeko buruan.  
Hori esaten zidan  
amak segituan.  
Baina nik kolpe pila  
hartu sekretuan.  
Zenbat neurona hilda  
ditut nik orduan?
4.  
Nik marrazten ez dakit,  
ez naiz eredua.  
Behin arkatza eskuan  
a ze aspertua.  
Zulo bat egin nuen  
begi inguruan.  
Ia bihurtu nintzen  
ume bat itsua..
5.  
Baloiarekin nabil  
askotan etxean.  
Nahiz ta ez didan uzten  
amak futbolean.  
Lanparak ere bota  
ditut jolasean.  
Kontuz ibili behar  
ama dagonean!
6.  
Nik egin izan ditut  
ekintza zoroak,  
ta nire gurasoek  
zigorrek mordoak.  
Nire ideiak izan  
dira epikoak.  
Baina nire asmoak  
beti dira onak.

Doinua: Pasaiako herritik

## Egun txarra

1.  
Tripa orroka daukat  
gose handiakin  
ta hortxe hozkailua  
kriston lasainakin  
ireki dut apur bat  
jateko asmokin,  
ta katuak kendu dit  
bere lagunakin!

2.  
Orduan ni joan naiz  
bronka botatzera  
lasaina zatiren bat  
dagon ikustera  
baina platera garbi,  
mekauen la ospera!  
Orain katutxo hauek...  
Ondo zigortzera!

3.  
Katuak zigortuta  
nago lasaiago  
afaltzeko ordua  
iritsita dago  
ta hozkailua hutsik,  
beteta nahiago  
nik egun txar honekin,  
ezin dut gehiago!

4.  
Hortzak garnitu ditut  
eskuilarekin  
ta ohean sartu naiz  
amorrutarekin  
ta katuak sartuta  
ohean nirekin  
egun txarra joan da....  
nago onarekin

Doinua: Doinua: ai,ai,ai,ai...

## Ikastola egunak

Alarmak jo ni, oraindik lotan  
ematen det atton zaharra  
aparatoa kendu orduko  
ateratzen zait makarra,  
bizilagunak entzun dezake  
sei t'erditako marmarra  
gogorra egiten zait goizero  
ohetik jaiki beharra.

Oheko berotasunetikan  
aterata daukat hotza  
mingainean zaporea ere  
zakarra eta mingotsa,  
irakasleak altu jarrita  
goizean goiztik ahotsa  
behintzat hamaiketakoarekin  
alaituko zait bihotza

Hamaiketakoa hartu eta  
ziztu bizin noa behera  
edozertara jolas gaitzke  
egunaren arabera,  
astelenean pilotan eta  
hurrengoan futbolera  
partidua hasi bezain pronto  
igo behar gera klasera.

Liburua atera ta gogo  
gabe dakagu inglesa  
hurrengo bi orduetan ere  
matematika, frantsesa,  
eragiketak, metal aroa,  
tildeekin ze estresa  
lehenbailen gelatik irteteko  
beti eukitzen det presa.

Pasiloaren punta batetik  
usaindu dut bexamela  
iristerako beteta zegon  
buila batean jangela  
lasai egon nahi baina ezin dut  
ta ezin da jan horrela  
gaurkoan ere ogia hegan  
egun guztitan bezela

Arratsaldea iritsi eta  
dena datorkit gainera  
etxeko lanak, bertso eskola  
dena nahastuta batera,  
ikaslearen bizimodua  
ederra dela bai zera!  
gaurkoa ahaztu ondo lo egin  
ta bihar berriz hastera

## IPUINAK

**Ane Gomez Beldarrain (9 urte)**

*Abentura hodeien artean*

B kategoria

**Julene Sanz Malvido (12 urte)**

*Amodiozko kantuak*

C kategoria

**Julen Sarobe Casado (14 urte)**

*Egarria*

D kategoria

**Carlos J. Garcia Penhá (14 urte)**

*Nire aitonaren aulkia*

E kategoria

**Kaya Garikano Arrien (16 urte)**

*Muda*

F kategoria

**Kerman Etxebarria Maiz (17 urte)**

*Algoritmoen ezgaitasuna. Ezinezko ebazpena*

F kategoria

## Abentura hodeien artean

Goiz batean, Maialen ohetik jaiki zen. Maialenek ilea sorbaldaraino dauka eta oso txukuna da. Oso dibertigarria da, oso bihotz handia dauka eta pixka bat lotsatia ere bada. Maialen jaiki eta bere liburu magikoa hartzera joan zen zuzenean. Bere liburu magikoak giltza zeukan eta Maialenek beti giltza eskumuturrean eramaten zuen. Giltza hartu eta liburua ireki zuen. Bere bigarren kaxoian gordetzen zuen liburua. Liburuan 67. orrialdera joan zen. Ezin da jakin nola egin zuen, baina...

- Liburuaren barruan sartu naiz!! -Esan zuen Maialenek harriturik.

Han, zeruan zegoen Maialen. Hor milaka ortzadar zeuden. Orduan bere ortzadarrera sartu zen. Bakoitzak bere ortzadarra zuen.(Ortzadarrak etxeak bezalakoak ziren). Maialenek bere ortzadar-etxera sartu zenean zera esan zuen.

- Kolore bakoitza gela bat da!!! -Maialen bere etxea kuxkuxeatzen hasi zen.

Gelak ikusten ari zen bitartean.

- Baina, hauek ez dira nire gauzak. -Esan zuen nahiko urduri. Orduan konturatu zen, denek bizilagun berriaren gauzak genituela eta berak gureak.

Orduan sofa berrian eseri zen, eta pentsatu zuen.

- Nire gurasoak kezkatu egongo dira, etxera itzultzeko garaia da. Baina, nola? -Galdetu zion bere buruari. Orduan ideia bila ibili zen.

- Zer egingo dut, zer egingo dut.-Esaten zuen behin eta berriro.

- Badakit, nire alboan dudak lagunarengana joango naiz. Horrela liburua berreskuratu ahal izango dut. -Esan zuen bere buruarekin harri eta zuhur.

Maialen bere lagunaren etxera abiatu zen. Atea ireki eta....

- Egun on nola deitzen zara? -Galdetu zion.

- Ni Martin naiz -Erantzun zion besteak.

Martin oso edukatua eta jatorra da. Kalera oso txukun joaten da eta gustatzen zaio lagunekin denbora egitea.

- Martin utziko al zenidake nire bigarren kaxoiko liburua hartzen?

- Noski, sartu, sartu etxera. -Erantzun zidan atsegin handiz.

Maialenek Martinen ortzadar barrura sartu zenean zera esan zuen.

- Martin!! Dragoia daukazu. -Noski zurea da.- Erantzun zion.

- Aaa!! egia da. -Neskak dragoia hartu eta pozez zorutzen jarri zen.

Dragoia oso itsusia da eta hozka egiten du. Batzuetan mukiak jaten ditu, nazkagarria benetan.

- Utziko didazu nire 2. kaxoia begiratzen? -Bai, bai, noski begira dezakezula.-Erantzun zion.

Maialenek bere 2. kaxoia ireki, 67. orrialdera joan eta berriro misterioz bere etxera itzuli zen sano eta salbu. Orduan dragoiak galdetu zion.

- Ziur sano iritsiko garela?

- Jada etxe barruan gaude eta.

Orduan Maialen sukaldara joan eta.

- Ze berandu esnatu zaren! -Esan zion Maialenen amak.

- Jajaja-Barrez lehertzen hasi ziren Maialen eta dragoia.

**Ane Gomez Beldarrain** / B kategorian, Ipuina, IRABAZLEA

## Amodiozko kantuak

Amodiozko kantuak. Bi hitz. Bi ezezagun, ezagunak baino askoz gehiago izatera heldu ziren bi horiek. Begirada, ukitu eta xuxurla bakoitzarekin mundua gelditzen zuten bi gazte horiek. Dena berdin zitzaien bi horiei. Batak bestearen beharra zuen, hori bakarrik... Baina maitasuna beti ez da fidela, inork espero ez duenean joan egiten da eta horrek ez du atzera bueltarik.

Oraindik gogoan dut. 2009ko abenduaren 13a zen, eguzkia hodeien atzetik atera zen, haizea firin-faran zebilen Madrilgo kaleetan zehar, udazkeneko azken hostoak indarrez bultzatzen. Parkearen alboko banku batean, abesti bat konposatzen ari nintzen, oraindik inork ezagutzen ez ninduenen. Ezinezkoa egiten zitzaidan hiru orduz jarraian lo egitea, amesgaiztoak izaten nituen eta izerdi patsetan esnatzen nintzen azken hilabeteotan.

Amorruak eta haserreak barrutik jaten ninduen ispilura begiratzen nintzen aldiro; ez nekien zer gertatzen zitzaidan. Inork erantzun ezin zidan galdera bati gehiegizko bueltak ematen nizkion. Ez nintzen ni neu ere ezagutzen.

Abenduko egun eguzkitsu hartan, nire begiak ezerezaren pare zeuden, oroitzapen eta nostalgian galtzen utzi nituen, euriak eratu zuen ur putzu sakonari begira. Orduan agertu zen bera: begi berdedun neska.

Arretaz behatu nituen haren begi berdeak, eguzki izpiekin urre koloreko puntutxoak nabarmentzen zitzaizkion eta kolore argiago bat hartzen zuten. Ezpainetako arrosa zeraman ipinita, haizeak haren adats luzea lirain astintzen zuen, bera gogaitzen zuen arte eta belarrien atzetik ipintzen zituen eraztun formako belarritakoak begi bistan uzten. Nigana hurbildu, "egun on" batez agurtu, bankuaren beste muturrean eseri eta nobela beltz horietako bati hasiera eman zion.

Beti bezala 10:00ak aldera iritsi nintzen Madrilen zegoen nire hiru pisuko etxera. Atea zeharkatu bezain laster kafe usaina sumatu nuen. María gerturatu, nire berokia eta poltsa hartu eta pertxeroan eskegi zituen. Kafe hotza edan eta nire logelara igo nintzen dutxa bero bat hartzera zerbait ahazteko esperoan. Ondorengo bi orduak, Justin Bieber eta ezagutu berri nuen talde bat entzuten pasa nituen leihotik begira. Negargura sartzen zitzaidan paper horri begiratzen nion bakoitzean, begiak gorritu eta barrurako gordetzen nituen isuri beharreko malko guztiak, dardarka hasten nintzen eta ezin nintzen gelditu, ezinezkoa zen...

Arratsaldea iritsi zen, burua lehertzeaz nuen beraz, paseo bat ematea erabaki eta Madrilgo kaleetatik ibiltzen hasi nintzen mozkortzeko taberna baten bila. Azkenean Alde Zaharreko taberna batek erakarri ninduen, ezaguna egiten zitzaidan ahots bat entzun bainuen. Barrura sartu orduko, ohartu nintzen goizean entzun nuen talde bera zela, kontzertu bat ematen ari zen, horrek apur bat animatu ninduen. Tabernako barran eseri eta adi entzun nituen esaten zituen esaldi eta hitz bakoitza.

*Alex, kontzertua baino lehenago...*

Ezin nuen goizeko neska burutik kendu, nor izango ote zen? Sakelakoa begiratu eta gogoratu nintzen arratsaldean tabernan kontzertu bat nuela musika taldearekin. Zapuztuta begiratu nuen mugikorra, ez nuen joateko batere gogorik, baina ez nuen beste aukera hoberik, musika gustuko nuen, baina jende aurrean abesteak lotsa ematen zidan. Azkenean, bakero urdin batzuk eta nire anaiak oparitutako polo txuri sinple bat jantzi nituen, kolonia apur bat bota eta nire Ford Focus grisean abiatu nintzen. Iritsi nintzenerako, taberna jendez lepo zegoen, eszenatokira igo, hitz batzuk esan eta kontzertuari hasiera eman nion. Bat-batean kontzertu erdian, norbait sartu zen tabernan, begira-begira gelditu nintzen, berehala ezagutu nuen begi berdeetako neska. Irribarre batez agurtu nuen. Aurpegi txarra zuen, begi-zuloak zituen eta ilea nahasita zeraman. Barraren aurrean eseri eta lurrean iltzatu zuen bere begirada, malko bat masailetik behera erortzen ari zitzaioala konturatu gabe. Trago bat bestearen atzetik hasi zen edaten, neurririk gabe, deskontrol hutsaz. Berak liluratuta begiratzen ninduen, baina nik kezkatuta itzultzen nion begirada. Kontzertua amaitu eta beregana hurbildu nintzen, ea laguntzarik behar zuen galdetu nion baina hark ezetz erantzun zidan, konturatu nintzenerako, tabernaren ateko kanpaitxoekin soinuarekin batera, begi berdeetako neska joan egin zen. Hain azkar joan zen, ez zidala denborarik eman esateko bere poltsa ahaztu zuela Gran Viako taberna hartan.

Arnasestuka esnatu nintzen, aldeetara begiratzeari utzi gabe; ohartu nintzen beste amesgaizto bat besterik ez zela izan. Ordularia begiratu eta goizeko 7:25ak seinalatzen zituen, izugarritzko buruko mina sumatzen nuen, suposatu nuen ajearengatik izango zela, beraz balkoira joan eta zigarro pakete bat atera nuen. Eguzki printzak suabe-suabe laztantzen zidan aurpegia abenduko ostegun epel hartan. Bart gaueko tabernan gertatu zenaz oroitu nintzen. Ez nekien zer gertatu zitzaidan, inoiz ez nintzen korrika irten horrela ezta hain urduri jarri... Etxeko txirrinak atera ninduen nire pentsamenduetatik, nor zen begiratu ere egin gabe, ireki egin nuen. Atea jo zuten, baina nire muturraren parean atzoko mutila zela ikusi nuenean, harritu egin nintzen. Ea berarekin gogoratzen nintzen galdetu zidan, nik baietz erantzun nion irribarre lotsati batez. Haren eskuetan nire poltsa ikusi nuenean, eskerrak eman nizkion eta kafe batera gonbidatu nuen nire egongelan.

Urduri nengoen, tentsioa nabari zen lau pareta haien artean, inork ez zuen ahoa ireki generamatzen 10 minutuetan. Baina Blanca, giroa apur bat lasaitzeko, hitz egiten hasi zen. Geroz eta konfiantza gehiagorekin egiten genuen hizketa, gure zaletasunak eta gehien gustatzen zitzaigun musika aipatuz. Bibrazio arraro bat entzun nuen, bere ezker patrikatik zetorren. Urduritzen hasi zela nabaritu nuen, komunera joan eta armairu txiki batetik bi pilula hartu zituen, ur trago batekin eraman zituen ahora. Kontatu zidan ezohiko gaixotasun bat zuela, duela gutxi detektatu ziotela eta sendatzeko erremedio bat bilatzen ari zirela. Oso estu besarkatu nuen, ez nuen ia ezagutzen baina bihozkada batek esan zidan ondo konponduko ginela.

Hurrengo hilabeteetan Alexekin elkartzen nintzen ia egunero. Gure adiskidetasunak aurrera egiten zuen, baina baita gaixotasunak ere. Medikuek esaten zidaten gehienez 5 urte gelditzen zitzaizkidala, nik nahiago nuen Alexi ezer ez kontatu; banekien gaizki

zegoela baina ez nuen nitaz kezkatzerik nahi. Nik denbora ahalik eta hoberen nahi nuen igaro, Alexekin bakarrik.

Apirileko egun lasai batean, Alexek buelta bat ematera gonbidatu ninduen, lehenengo aldiz elkar ikusi genuen lekura eraman ninduen. Bankuan eseri ginen eta bien artean urduritasuna nagusitu zela banekien. Egunsentia jabetu zen zeruaz, kolore urdina beltza bilakatu zen poliki-poliki, ilea aurpegitik kendu zidan eta zerbait xuxurlatu zidan belarrira, hotzikara bat sentitu nuen. Bere ezpainak nigandik oso gertu zeudela sumatu nuen eta haren kafe koloreko begiak arretaz behatu nituen, baita bere ile marroixka, eskuekin leun laztantzen nuen bitartean. Muxu luze bat eman nion, niri amaiezina iruditu bazitzaidan ere, banekien betiko gordeko nuela.

*Madrilgo hilerrian...*

-Gaur, 2030eko abenduaren 13a, ezagutu ginen eguna, maitia. Zure falta handia sumatzen dut. Ezin dut gehiago, ito egingo naiz horrela jarraitzen badut. Zurekin elkartuko naiz azkenean. Maite zaitut, baina gaur egingo dut.

*Irratian...*

*“Gaur, 2030eko abenduaren 13an Alex Sanz abeslari ospetsuak bere buruaz beste egin du bere eraikineko 7. pisutik botata. Bere emaztea hil zen egun bera da gaur, zergatia hori dela pentsatzen du poliziak. “Amodiozko kantuak” disko famatua dedikatu zion pertsona bera zen bere emaztea: Blanca Garcia. Goian bego.”*

**Julene Sanz Malvido** / C kategorian, Ipuina, IRABAZLEA

## Egarria

**“Inoiz ez zara txikiegia aldeia markatzeko” Greta Thunberg, 2018**

Gaur alai esnatu naiz. Tira, nor ez da alai esnatzen? Nire bizilagun maiteak agurtu bezain laster, mundu guztiak gustuko duen kafe katilu bero bat prestatu dut, beti bezala. Bizitza honekin pozik ez dagoenak ez du lekurik gure gizartean. Hala ere, ez dago bizitza hau maite ez duen inor. Denboran kokatuko zaituztet, azkenean ahaztuko zait bestela: 2063. urtean gaude. Gaur urtarrilak 12 ditu. Nire izena ere esan beharko nuke, ezta? Biztanle 7B'32,4<sup>2</sup> dut izena. Polita, ezta? Gosaldu ondoren jantzi egin naiz. Primeran! Nire jantzi gogokoena janztea tokatzen zait gaur, beti bezala. Jantzi ondoren kalera atera naiz eta, beti bezala, denok batera atera gara etxetik, lanera joateko.

Lanera iritsi naiz, nire lankideekin batera, eta nire postura joan naiz. Ni begiralea naiz. Eta zer da begiralea izatea? Oso sinplea da: nire lantegiko jendeak ondo lan egin dezan begiratzen dut. Jendea begiratu behar dudan arren, ez da ezer arriskutsurik gertatzen, eta langile guztiek ondo egiten dute lan. Lana hasi eta hiru ordu pasa ondoren atsedenaaldi bat dugu. Bazkaria ematen digute atsedenaaldietan eta nahi adina ur basokada. Zeinen pozik nagoen nire lanean!

Lana bukatu ondoren etxera itzultzen naiz, denekin batera. Nire bizilagunak agurtzen ditut eta etxean sartzen naiz. Zeinen ondo! Betiko janari oso ona afaltzen dut eta, noski, urez beteriko edalontzi batekin jaten dut. Neure pijama grisa jantzi egiten dut eta ohera joaten naiz. Bikain.

Gaur alai esnatu naiz berriz ere. Egunero galdetzen diot nire buruari nor ez den alai esnatzen eta erantzuna argia da: jende guztia alai esnatzen dela esaten diot nire buruari. Nola esnatuko da bestela? Goiz guztietan egiten dudan errutinaren ondoren lanera joan naiz. Pozik. Esan dut zein gustukoa dudan nire lana? Ba, oso, egia esan. Gaur atsedenaaldia hartzeko orduan nire bulegoko aulkiarekin estropezu egin eta mahaiaren kontra kolpe handi bat hartu dut.

Esnatu eta ipurtargiak ikusten ditut airean. Langile guztiak etxera joan dira eta lantegia hutsik dago. Nire bulegoko leihotik begiratu eta gutxien espero dudan pertsona sartzen ikusten dut, hau da, gure buruzagia, Marreco III.a, gobernuko ez dakit norekin eta nire nagusiarekin. Zer nolako ohorea! Nire bulegotik ateratzera noala pentsamendu batek zeharkatzen du nire burua. “Eta uste badute espiatzen ari naizela? Langile guztiak etxera joan dira eta arraroa izango litzake bat-batean norbait agertzea haien aurrean”. Nire mahaiaren parean eserita gelditzea erabakitzen dut, ikus ez nazaten. Nahi gabe elkarrizketa guztia entzun dut. Esaten dute ez dakit zer urari buruz, guk benetan burua hutsik dugula, oso ideia ona izan zela uretan mono-

ez-dakit-zer-gauza jartzea eta gu oso errazak garela kontrolatzeko. Ikus dezakezuen bezala, ez dut oso ondo entzun. Hiru horiek lantegitik atera arte itxaron dut, baina lehenago kamerak itzali ditut (bai, hori egin dezaket!).

Etxera berandu iritsi naiz, tentuz, inor ez esnatzeko. Ez dut nahi bizilagun gizajo bat esnatzea eta lorik ez hartzea gau guztian. Afaltzeko zerbait prestatu dut, isiltasun osoz, eta zerbaitekin konturatu naiz: egunero berdina afaltzen egon naiz, egun batean ere aldatu gabe. Urduri, nire armairua ireki dut. Zer nolako harridura sentitu dudan nire jantzi guztiak berdinak direla ikustean! Urduritasunak egarritu egin nau. Ura edatera nindoala gelditu naiz nire egongela oso txikiaren (oraintxe konturatu naiz) erdian. “Gaur ez dut urik edan... Eta gaur konturatu naiz mundu hau oso arraroa dela.”, gainera, agintariaren elkarrizketa oso ondo entzun ez badut ere, ulertu dudanarekin, ondorioztatu dezaket urak zerbait susmagarria duela. Nire beste hainbat pijama bezalakoa den pijama bat jantzi, ohera sartu, eta lo gelditu naiz. Edo, egia esan, lo gelditzen saiatu naiz. Ez dut lortu ezta bi minutu zoragarritz lo egiterik.

Uste dut heavy metaleko kontzertu batean lo hartu dezakedala oraintxe bertan. Ezin izan dut lorik egin gau osoan. Oso-oso luzea izan da. Telebista ikusten saiatu naiz, baina bakarrik iragarkiak jartzen zituzten. Eta urari buruzkoak, gainera. Horrek ez du asko lagundu nire egarria baretzen. Nork jartzen ditu horrelako iragarkiak? Jendea urarekin kontrolatzen duen gobernuaz aparte, esan nahi dut. Gaur ez dut kaferik gosaldutako, ura du eta. Ez dut nahi berriz nire burua gobernuaren kontrolpean gelditzea txotxongilo bat banintz bezala. Hozkailutik afari bat atera eta gosaltzeko hartu dut. Guztiz egarrituta nago. Esnerik ere ez dut hozkailuan! Tira, ez dakit zergatik izan beharko nukeen esnerik hozkailuan urarekin kontrolatzen bagaituzte.

Jantzi naiz, eta ez dakit zergatik, denaz gogoratu naiz. Aldaketa klimatikoa urrunegira iritsi zela, urik ez zegoela ia-ia eta azkenik gobernuaren erabakiaren berri ematea. Nola izan ginen hain ergelak lehendakariak esaten zuena sinisteko? Lehendakari ez, barkatu, orain errege deitu behar diogu. Nartzisista! Ez dakit zergatik aukeratu duen Marreco III. izena ere. Poloetako izotz-geruzak urtu ziren, eta pentsa dezakezu zergatik izan genuen hainbeste arazo urarekin. Ba esandakoa, poloetako izotz-geruzak urtu eta ozeanoen maila asko igo zen. Hasieran presak egin zituzten, baina egun batean zerbait gaizki joan zen eta presak... guztiz ireki ziren. Milaka bizitza galdu ziren. Nire gertuko zenbaitenak barne... Bihotza uzkuertzen zait hori gogoratuta. Tira, jarraituko dut. Ozeanoen maila asko igo zen, hiri asko hondoratu ziren eta azkenean milaka pertsona elkartu ginen puntu altuetan. Lurreko tenperatura asko igo zen, eta ura gutxinaka-gutxinaka murrizten joan zen. Gobernuak ura lortu zuela

esatean, euforia piztu zen gure artean. Nork imajinatu behar zuen ondoren gertatu zena.

2030ean hasi egin zen guztia, gutxi gorabehera, 10 urte nituenean. Gertatutakoa kontatzen dizuedan bitartean lanera iritsi naiz. Atentzioa ez deitzen saiaturiko naiz. Beste guztiek egiten duten berdina egiten saiatu naiz, baina ez dira nigan fijatu ere egin, ondo egin dudala suposatzen dut. Nire lanpostura joan naiz eta betikoa egin dut. Benetan egon naiz 10 urtez ezer ere egin gabe? Langileek zer egiten duten begiratu besterik ez dut egin behar. Lau ordu oso luze igaro ondoren, atsedean ordua iritsi da. Oraindik oso egarrituta nago, baina ezin dut askorik egin, edaten badut, agur nortasuna. Ez dakit zein ordenatan atera behar dugun bulegotik bazkaria hartzeko, baina azkenetakoa atera naiz. Espero dut ondo atera izana, bestela harrapatuko naute eta.

Bazkaria ematen diguten gelara iritsi baino lehenago gure nagusiaren bulegoa dago. Ez dirudi oso kontrolatuta zegoenik, berak ur naturala izango du, aldatu gabea. Bere bulego aurretik pasa garenean, erdi irekita ikusi dut atea eta hor ikusi dut nire aukera deshidratatuta ez hiltzeko. Bi aldeetara begiratu dut, inork ikusten ez nauela ziurtatzeko. Norbaitek ikusten banau, ba, nahiago dut ez pentsatu zer gertatuko den. Nire aukera ikusi dudanean, ziztu bizian sartu naiz bulego handi horretara. Guztiz zuria da, eta erdian mahai txuri bat du, haren aurrean elurra bezain zuria den aulki bat dago (bai, asmatu duzue). Ez da nire egongela baino askoz handiagoa, egia esan. Mahaiaren erdian urez beteriko pitxar garden bat dago. Ezin izan diot egarriari eutsi, eta pitxarretik edan dut, edalontzirik gabe. Nork hartuko zuen denbora edalontzi polit bat hartzeko eta urez betetzeko, egarritz hiltzen ari bada? Bulegotik kontu handiz ateratzera nindoala ahotsak entzun ditut. Nire nagusia zen norbaitekin hizketan eta nahiko haserre dirudi. Baina hori ez da okerrena. Bulegora bidean, baina zuzen eta oinez oso azkar dabil, telefonoa eskutan. Telefonoa dute, benetan? Jendeak gehienez irabiagailu elektriko bat izan dezake. Batzuk zorionekoak gara eta telebista dugu, noski. Nagusia bulegora sartzera zihoala, panikoan sartu naiz. Ideia hoberik ez eta mahai azpira sartu naiz.

Bulegoan bueltatxo batzuk eman ditu, urduri, eta gainera denbora guztian mahaira gerturatuz, ni harrapatzeko aukera handituz. Mahairantz joan da momentu batean, eta aulkia atzeratu du, bertan esertzeko. Mahaiaren albo batera joan naiz, izan ere oinekin ukitzen banau, hiritik kanpo noa. Ordenagailua ireki du eta gauza batzuk egin ditu. Altxatu da, aulkia bultzatu du eta bulegotik joan da. Gaur guztiz zortedun nabil. Dirudienez, ez nau ikusi.

Bulegotik atera naiz hamaiketakoa hartzeko eta langile guztiek arraro begiratu naute, seguruenik berandu iritsi naizelako. Atentzioa gutxiago deitu behar dut. Guztiok gure lanpostura bueltatu gara, ilara batean, ordena apurtu gabe. Azkenetarikoa noa berriz ere, langile bakarra dut atzetik. Hor ikusi dut norbait salbatzeko nire aukera.

Erritmoa mantsotu dut eta tonu baxua erabili, inork ez digu entzun behar. Berari hitz egiten hasi naiz, zer moduz dagoen galdetu diot, jatorra izan naiz eta hori guztia. Nire benetako intentzioa elkarrizketa beste leku batera bideratzea zen, iraganera besteak beste. Iraganaz eta gobernuari buruz hitz egiten hasi naizenean burutik jota banengo bezala begiratu nau. Eztarrian korapilo bat egin zait. Benetan nintzen lantegi guztian egia zekien bakarra? Denbora apur batean geldirik egon naizenez, langile azkar horrek ihes egiteko aukera aprobeztatu du. Oihuka hasi da eta urduri bere atzetik korrika egiten hasi naiz, ni salatu ez nazan. Ez dut pentsatu ere egin nahi zer gertatuko zatekeen. Zoritxarrez, berarentzat, ni baino dexente mantsoagoa da, eta erraz harrapatu dut. Egitea bururatu zaion gauza bakarra oihukatzea izan da, eta beste baliabiderik ezean, lepoa pixka bat estutu diot, "lokartzeko". Ez dut hil, ez naiz basatia, baina iskin batean utzi dut inork ez ikusteko.

Nire bulegora iritsi naiz egin dudanari buruz pentsatuz. Ez da denbora luzea igaroko norbaitek aurkitu edo esnatzen den arte. Gertatutako guztia kontatuko dio ez dakit nori eta atxilotuko naute edo horrelako zerbait.

Etxera iristean, motxila txiki bat hartu dut eta bizirauteko beharrezkoak diren gauzak sartu ditut bertan. Kanean ezkutatuko naiz. Gizartetik urrun. Agian norbait salbatuko dut, edo hiri osoa. Seguruenik ez dut lortuko, edo bai. Saiatuko naiz.

## Nire aitonaren aulkia

Gure etxean aulki bat dago. Leiho ondoan dago, arratsaldean argi pixka bat hartzen duen lekuan. Aitonarena zen. Ez dakit zenbat urte dituen, baina zaharra da, eta eserlekuan haren gorputzaren itzala dago.

Aitona ez dago hemen. Duela bi urte hil zen, arratsalde lasai batean, aulki berean eserita eta tarta zati bat eskuan. Aulkia hutsik dago.

Aulkia asko ikusten dut. Ez dakit zergatik. Baina egiten dut. Leihoari begira negoen bitartean, nik aulkia ikusten dut.

Aitonak istorioak kontatzen zizkidan aulkian eserita. Ez zituen ipuin handiak kontatzen, berak bizitako istorio txikiak baizik: nola konpondu zuen aitona-amonaren erlojua, nola ezagutu zuen amona, nola irakatsi zion txakur bati txistua jotzen. Nik ondo entzuten nuen. Eta seguru sentitzen nintzen, lurra sendo zegoelako eta haren ahotsa sendo zegoelako. Orain ez dago istoriorik. Ez dago ahotsik. Aulkia bakarrik dago, eta, niretzat, oraindik sendo dago.

Egun batean, hotz handia -abenduko hotz gogorra- egiten zuen batean, gogoratu nuen aitona galtzerdi lodi batzuk janzten zituela neguan, marroi ilunak, eta nola sartzen zituen oinak haietan. Nik, nire galtzerdi laranja hartu nituen, erabiliak, eta aulkian jarri nituen, eserlekuan, aurrealdean, biak, hankak imajinatzen saiatuz.

Nire amak ere ikusi zuen hura. Gelatik pasa zen eta gelditu egin zen.

- Zer ari zara egiten?- galdetu zuen, ez harrituta, ez eta baimena eskatzen ere.

- Aulkia berotzen- erantzun nion. Ez zen beste azalpenik izan.

Amak ez zuen ezer esan. Denbora luzez begiratu zuen aulkia, eta gero sukaldara joan zen. Katilu handi bat hartuta itzuli zen. Aitonarena izaten zena, tea edo kafea hartzeko. Ia lapiko txiki bat zirudien. Aulkian jarri zuen, galtzerdien ondoan.

- Hau ere- esan zuen. Eta eskuak katiluaren gainean jarri zituen une batez, beroa ematen arituko balitz bezala.

Gero, nire aita etorri zen lanetik. Bere jertse berdea hartu, etxean erabiltzen zuena, eta aulkian jarri zuen, aulkiaren atzealdean.

- Haizea dabil- esan zuen, leihoari begira, baina benetan aulkiari esanez.

Handik aurrera, guk bete genuen aulkia. Ez genuen hitzik esan. Momentu batean pasatzen ginen, eta gauza bat uzten genuen. Nire anaiak marrazki bat jarri zuen, etxe bat marraztua zuena, tximiniatik kea zeriola. Nik nire liburua jarri nuen, irakurtzen ari nintzena, orriak pasarte on batean irekita utzita. Nire amak paper txuri bat jarri zuen, eta "bazez behin" bakarrik zegoen idatzita, ipuin baten hasiera irekia.

Aulkia ez zen hutsik geratu. Gurekin bete zen. Eta objektu bakoitza gogoeta bat zen, aitonaz edo bizitzaz.

Egun batean, nire laguna etorri zen. Triste zegoen. Begirada hutsik zuela, txakurra galdu zuelako. 14 urte zituen.

- Ez dut etxean egon nahi- esan zuen negarrez. -Hutsik dago guztia.

Ez nuen hitzik esan. Besarkada eman beharrean, gelara eraman nuen. Eta gure aulkia erakutsi nion, objektuz betea, bizitzaz betea.

- Hau gure aulkia da- esan nuen. Ez nuen beste azalpenik eman beharrik izan. -Jarri zerbait. Zure txakurrari gustatzen zitzaion zerbait.

Nire lagunak denbora luzez begiratu zuen aulkia. Gero, poltsikoan begiratu eta hezur bat atera zuen, garbia. Bere txakurrak maite zuen hezurra, egunero eramaten zuena jolasteko. Aulkian jarri zuen, nire liburua eta nire aitaren jertsearen artean. Bere eskuak hezuraren gainean jarri zituen une batez, bizitzako azken bero pixka bat emanez.

- Orain ez dago hutsik- esan zuen, eta haren hitzetan bizitza zegoen. Eta irribarre txiki bat egin zuen, nahiz eta begiek argirik ez zuten.

Orduan pentsatu nuen: aulkia hutsik dago, baina guk bete egin dugu. Gure oroitzapenekin. Gure maitasunarekin. Eta ez da maitasun abstraktu bat. Galtzerdi laranjak dira. Katilu handia da. Jertse berdea da. Hezur bat da. Forma du. Pisua du. Ukitu daiteke.

Eta munduan aulki huts asko dago. Parkean. Kanean. Jolastokian. Kafetegietan. Liburutegietan. Guztiak hutsik daude. Gure etxeko aulkia hutsik zegoen. Baina, orain ez.

Eta nik ez ditut hutsik ikusten orain munduko aulkiak. Aukera ikusten dut. Zerbait jartzeko aukera. Inork ez du hutsik utzi behar. Inork ez du hutsa merezi.

Nire aitonaren aulkia beti egongo da han. Baina, inoiz ez da hutsik egongo. Objektu horiek, pixkanaka, aulkiaren zati bihurtzen ari dira, haren historia. Galtzerdi laranjak egongo dira, nire aitonaren oin beroen zain. Katilu handia, edari bero baten zain. Marrazkia. Liburua, ihesbide bat. "Bazen behin" duen papera, hasiera. Jertse berdea, besarkada bero bat. Hezur bat, zuri-zuria.

Gure maitasuna egongo da. Eta maitasun ukigarria da.

Batzuetan, eseri egiten naiz ni aulkian. Ez dut objektuak kentzen; pixka bat mugitu eta lekua egiten dut. Aitonaren lekua da, baina nire lekua ere bada. Eta nire lagunarena. Eta nire familiarenena. Guztion lekua da, betetzeko prest dagoen lekua

Aulkiak erakusten digu: hutsik dagoen zerbait, bete egin daiteke. Eta beteta dagoenean, ez da tristea, ez da karga bat. Edertasuna hartzen du. Bizi-betetasuna. Objektu horiek ez dute aulkia konpontzen, ez dute zaharberitzen. Bizi egiten dute.

Maitasuna ez da ikusten. Baina, badago. Han dago, aulkian. Forma duen eta ukitu daitekeen zerbaiten itxura hartzen du. Ez da ipuin bat. Egiazkoa da.

Nik orain badakit zer egin aulki huts bat ikusten dudanean parkean, geltokian edo auzoko etxe bateko patioan: zerbait jarri. Harri bat. Lore bat. Paper txiki bat, "Zuretzat" idatzita. Edo besterik gabe, eseri bertan, denbora pixka batez. Arnasa hartu. Pentsamendu bat izan. Eta joaten zarenean, maitasun pixka bat geratuko da.

Aitonari esango nion, aulkian eserita aurkituko banu: "Ikusi duzu? Zure aulkia ez dago hutsik. Gu gaude hemen. Eta munduko aulki huts guztiak bete ditzakegu".

Eta aitonak irribarre egingo luke. Nik hori pentsatzen dut. Barruan badakit seguru-seguru irribarre egingo zuela, eta oso polita.

Eta hori da nire istorioa. Aulki huts baten istorioa. Baina, hutsik ez zegoen aulki baten istorioa. Beteta zegoen aulki baten istorioa. Eta munduan oraindik bete behar diren aulki asko daude. Eta hori ez dela etxeko lan bat, opari bat baizik.

Amaitu da. Baina, aulkia ez.

## Muda

*emen idatziko dut gaurtik aurrera, bueno, dagoeneko idazten ari naiz. gaur egin dugu leengoz lo etxe berri honetan eta aulkixora igo behar naiz leio handi honetatik zugeak ikusteko. eta leioa esan nahi dut ez leioa, kontuz hau irarkurtzen ari bazara zeren antzekoak dira baina ez berdinak. nahiz eta animaliak asko gustatzen zaizkidan ez ditut leiotik leoiak ikusten. zugeak bai ordea. hor etxe aurrean belarretan burua tente. niri zugeak pila guztatzen zaizkit. badakizu zugeak arropaz aldatzen direla? aitaxok dio gure amatxok baino arropa gehiago dutela.*

Mesanotxearen hondoa aurkitu dudana koadernotxoa albo batean utzi, eta leihora zuzendu naiz, zazpi urteko ni txiki horrek ikusten ez zituen lehoiak uxatzera. Orroka dabilzkit tripetan, *bro*, mudantza honek eguneroko abiadura aldatu digulako. Egunotan, gure errutina ez dago ordularien menpe, ez gabiltza garbigailuaren bira errepikakorren inguruan, eta muzin egiten diogu etxe atzetik puntuan pasatzen den trenari. Ez gosari, ez bazkari, ez afari. Amak ez du kozinatzen. Bere bizitza kartoi barruan biltzeak baino ez du kezkatzen. Olagarroaren pare, kaxetan iragana sartzen duen bitartean, telefonoz pipertzen da aitarekin. Sandwicha gora, sandwicha behera, ogi artean dagoen urdaiazpikoa dela bera, guraso zaharren eta semeen artean kateatuta.

Amatxo, *bro*, ez erabili hitz horiek haserretzeko, gosea ematen digute eta.

Tope azeleratu du mudantzak amatxo –“ama” esan beharko nuke hamasei urterekin?-. Anaia txikiari ere *ghosting-a* egiten dio. “Zergatik jartzen du *Zazpi* mudantza kaxetan, amatxo?”. Erantzunik ez. “Amatxo, zergatik idatzi dute *Zazpi* etxetik joateko kaxetan?”. Paso. “Amatxooo, *Zazpi, zazpi, zaazpiiii*”. *Kir-kir*. Zergatik izango da, *bro*; zazpi gauza sartu behar dituzulako bakoitzean. Eta, literal, zazpi dinosauro sartu ditu lehenengoan.

Nik, berriz, ez dakit iraganetik zer erreskatatu.

*Urtebete daramagu etxe berrian. Zugedorria deitzen da gure etxe ondoko animalia eta askatzen zaio ezkata bat eta gero beste bat eta gero beste bat eta ez dakit guztira zenbat ezkata izango dituen baina den-den-denak kentzen zaizkio eta lurrean geratzen dira oso osorik txirularen funda izango balira bezala.*

Hara, urtebete behar izan nuen puntuaren atzetik letra larria zihoala ikasteko. Agian, hori da arazoa, motela naizela. Amak erritmoa eta ganora eskatzen dit, baina nire abiadura bestelakoa da. Sugearena, agian. Ezkatzaz ezkata geldiro-geldiro aldatzen doan narrastiarena. Besoei begira entretenitzen naiz, aurpegiko bizar berriari, zerbait dabil azal horren azpian, baina ezin jakin zer. Gaur, Lilik bibotea dudala esan dit, eta sentitu dut gauza arraro hori. Sentsazio *randoma*. Badakizu zertaz ari naizen, *bro*?

Amak *venga venga*, bizkor, eta *pla-pla* egiten die eskuei al baita eta arinen sugez inguratutako etxe honetatik joateko. Baina, sentsazioa daukat leku ezberdinetara mudatzen ari garela ama eta biok. Bai, *bro*, ez dakit nola azaldu, baina, bai, *bro*.

Gosearen jolasez gain, plazer berriak aurkitu ditu mudantzaren zera honetan. Gauzei lekua kentzen tematu da orain: hutsean ontziratzen.

Filokoak esan digu Aristotelesentzat espazioa lekuen lekua dela, baina hori gure amari bost axola. Pigmeo bihurtzen ditu erraldoiak, giltzatako plumiferoak. Hutsa sortzen ukitzen du zerua. Aspirrrragailuaren motorrrrrr zatarrrrrra toperrrrra jarrrrri eta gure trrrrrripen orrrrrrrrrroa mututu. Gure urdaila hustu, eta sandwicharen erdian dagoen urdaiazpikoa delako kexatu. Orduan, *Zazpi* hitza duten kaxez beteta dagoen sukaldean, *Bimbo* ogi artean jartzen dut ama, eta, haurtzaindegiko ume txikiak haserretzean egiten duten modura, hozka egiten diot.

*Aulkitxora igo gabe ikus ditzaket sugedorrien ugaltze jolasak. Azkenaldian, demasa ugaltze dira eta etxondoak reptilium bat dirudi. Amak dio egunen baten atsekabe bat izango dugula, amak dio ezin dela lasai ibili etxe bazterretan, amak dio gutxien espero dugunean, komun-zulotik narrasti tzarra aterako zaigula. Ama ez dago gustura lehoirik ez, baina leiho handiak dituen etxean.*

Hamabi urterekin jarri nion esea sugeari. Bazen garaia, *bro*. Hala ere, halako tristura txiki bat eman dit testuaren zuzentasunak, ez dakit, *bro*, *Zazpi* kaxa horietako batean, meandro formako hizkia sartzeko gogo bizia sentitu dut bat-batean.

Dagoeneko leihora heltzeko behar ez dudana aulkitxoa ere barrura joan da, eta inora igo gabe, eguzkia hiltzen ikusi dut, puntuen osteko letra xeheen modura, zeta sigi-sagatsuen pare, gosez hiltzen diren umeak bezala. Leihoak eta lehoiak bereiztea lortu badut ere, oraindik ez naiz tripan orroka dabilen animaliaaren domadorea. Whatsappez esan diot:

*Gosez hiltzen ditu amak umeak, aita. Zu ez zara jada umea. Amak gosez hil duelako.*

*Lasai, Joselito jamoia erosi dut superrean.*

Ezkatak askatzen sentitu ditut aitarekin berba egin ondoren, halako liberazio bat, halako aieru bat. *Zu ez zara jada umea*. Baina, azkar ahaztu dut dena, kanibalismorik egin nahi ez duen gizona atetik sartzeko ikustean. Hobe *Joselito* jan, ama baino.

*Mudatzen ari dira etxe ondoko sugeak. Azal berritu nahi dute udaberrirako. Min egiten ote die azala erausteak? Aitak dio behar bezala eta kontu handiz egiten bada, prozesua ez dela batere mingarria sugearentzat. Izan ere, azal zaharraren eta berriaren artean olio geruza bat sortzen da, eta horrek erraztu egiten duela muda.*

Aitak beti esaten digu ezerekin ez duela minik ematen. Zaurian botatzen den ur oxigenatuak ez du hazkura eragiten; txertoen ziztadak, huskeria hutsa; surf taulak betondoan eman zidan zartakoa, laztanaren parekoa. Koaderno hau da inuzente baten lekukotza, aitari dena sinesten zion ume moko baten xalotasuna. Bai, *bro*, azal berritzeak min eman behar du nahitaez. Suge horren mina sentitu dezaket, neure barruan hazten ari den gauza berri horren minaren antzekoa delako. Bestela, zer dela eta uneoro gose hau, *bro*? Sentitu dezaket. *Tipo* berri bat nire giharrak okupatzen, nire pentsamendu inozoak ordezkatzeko: Olentzero, Sagutxo Perez eta enparauak kanpora! Ez dute lekurik. Eta horixe da mingarriena, *bro*. Ez du sufritzen hezurak, ezta giharrak ere, ez da gihar min kontua. Benetako mina, nire barruko umea leku gabe itotzen ikustea da, *bro*. Amak aspiragailua hartu, eta amorrerruuuuuuuz errrreduzitu duela sentitu *Zazpi* izena daramaten kaxa horietan sartu ahal izateko.

Eta, *bro*, batzuetan ez dakit barruko orro hori goseagatik edo beldurragatik den.

*Amaren beldurrak irabazi du partida, eta bagoaz. Aurten izango da etxe bazterrak tutu formako azal zahar horiekin beteta ikusiko ditudan azken urtea. AAK esan dit tutu hori exubia deitzen dela. Iraganeko arropa zaharren armairua halako azal zaharrez beteta dagoela iruditu zait. Agian, herpetologoa izan beharrean idazlea izan beharko nuke.*

Amaren memoria historikoa jantzien bidez azaltzen da. Hauxe nire danborradako

lehengo sukaldari *trajetxoa*. Kamiseta honekin ezagutu nuen zure aita. Bataplaneko lehengo festara eraman nuen soinekoa, ene! Ezkontzako tope *randoma*. Lehen Jaunartzekoa. Denak sartu ditu kaxetan, zazpinaka. Beheak hartuta. Goiak konponduta. Botoiak indartuta. Orain, berriz, amak ez du ezer josi nahi. Amak ez du kozinatu nahi. Sugearen muda delako haurtzarora, eta nerabezaroaren atorra jantzita ikusi nahi nauelako azkar, bizkor, *venga-venga*, garbigailuaren bira errepikakor eta tren puntualen abiadura baino askoz azkarrago. Eta ez dio konponketarik egingo mauka luzeegiak dituen alkandorari, ez dio barrena hartuko handiegi datorkidan nerabezaro honi. Amak ez duelako josten. Amak ez duelako kozinatzen. Amak umea gosez hiltzen utzi duelako handiegi datorkion azal berri batean bilduta.

Esan nahiko nioke etxez etxe dabilen Santa Ageda kantariari, norbere baitan ere mudatzen garela. Eta, zazpi gauza kabitzen diren kaxa horiekin moldatzeko, matematikekin ez dela nahikoa.

Hamazazpi urte eta hogeita hamar hortz dauzkat, bost plumifero eta zortzi zapatila,

intxaur txiki bat eztarrian eta hamabi azeituna hezur patrikan, Errealeko lau kamiseta eta Take Kuboren hamalau zenbakia, Playrako hiru joystick eta sei zigarro motxilan, Ligako jokalarien berrogei kromo eta neska baten hogeitaz bi mezu, amatxoren gabon musutxo bat masailean, eta Liliren beste hogeitaz bi irudimenean. Metafora bat zain eta hirurehun eta berrogei ortografia akats koadernoan.

Nola aukeratu *Zazpi, bro*?

Agian, *bro*, aukera egina dago. Kaxara doa, gosea: ez kentzeko, baizik eta beharrezanagatik mugitzeko. Barrura doa beldurra, komun-zulotik ateratzen den narrastia bezala, existitzen dela onartzeko. Bertan dago, aukerak: jada behar ez dudan hori, baina handitasuna beste era batera ulertzen lagunduko didalako. Nirekin dramatzat lehoiak eta leihoak, gauza txikiek diferentzia handiak sor ditzaketela ez ahazteko. Leku bat egin diot, sugearen azal zaharri ere, minik gabeko minaren frogatza. Badatoz zeta sigi-sagatsiak eta meandro formako letrak; bizitza lerro zuzenean ez datorrela onartzeko, akatsaz ikasteko. Eta nola ez, barruan orroka jarraitzen duen umea. Hori ere, betirako.

Abade bat dirudidala diostazu, *bro*? Ondo entzun al dut? Aurreko guztia baino hobe dela zazpi pisuko sandwicha, *bro*?

*Joselito, Basatxerri*, arrautza, tomate, ketchup-a, letxuga eta hirugiharra, hobeto, *bro*?

Sugeak bezala, aurrera egin dut, azala atzean utzita, lurrean hutsik geratzen den tutu horri azken begirada bat bota eta sandwicha jateko gogoz.

*Ea zelako leihoak eta leihoak dituen etxe berriak.*

**Kaya Garikano Arrien** / F kategorian, Ipuina, IRABAZLEA

## Algoritmoen ezgaitasuna

### Ezinezko ebazpena

Helios hezkuntza kolapsoa bezala ezagutzen den gertakizunari erantzuteko sortu zen, kaos eta abandonu garai bat. Urte horietan, erakunde tradizionalak pikutara joan ziren. Eskola itxiek, maisu nekatuek, hezkuntza-desberdintasun handiek eta memorizazio mekanikoa pentsamendu kritikoaren gainetik saritzen zuen sistema zaharkitu batek batere babesik gabe utzi zituzten belaunaldi oso-osoak.

Heliosen sortzaileek ezinezkoa zirudien zerbait eskaini zuten. Hezkuntzaz aparte, hobekuntzan zentratuko ziren. Ez zuten irakatsiko bakarrik; inperfekzio guztiak moldatuko, gidatuko eta zuzenduko zituzten.

Haien helburua pertsona uniformeak, emozionalki sendoak eta oso efizienteak sortzea zen. Ezarritako ordena zalantzan jarri eta desafiatu gabe gizartean funtzionatzeko gai diren pertsonak. Barne-arazorik, kaosik, akatsik gabeko mundua.

Heliosen ikasgela bakoitza teknologia modernoekin ekipatuta zegoen: monitoretzako panelak, mugimendu guztiak jarraitzen zituzten kamera txikiak, eta ia entzuten ez ziren frekuentziak transmititzen zituzten bozgorailuak. Frekuentzia horiek emozioak kontrolatzeko erabiltzen ziren: antsietatea gutxitzeko, kontzentrazioa areagotzeko edo desoreka emozionalak konpontzeko.

Barruko lorategiak ere ez zeuden apaintzeko bakarrik. Zuhaitz bakoitza, lore bakoitza eta iturri bakoitza estrategikoki kokatuta zeuden kaosik sortu gabe lasaitasuna eskaintzeko.

Heliosen ez zegoen kasualitaterik. Denak helburu argi bat betetzen zuen: kontzentrazioa maximizatzea, emozioak erregulatzea eta obedientzia ziurtatzea.

Ikasleen egunerokoa kalkulatuta zegoen: ordutegi zorrotzak, ariketa fisiko programatuak, simulazio kognitiboak, memoriaren berrikuspenak eta Egonkortasun Emozional Kolektiboko saioak, non bakoitzaren sentimenduak aztertzen ziren eta, beharrezkoa balitz, zuzendu egiten zen taldearen berdina izateko.

Anek konfiatzen zuen sistema horretan. Heliosen egitura onartzen zuen zalantzarik gabe. Berarentzat, ordena zaintza mota bat zen.

Goizero, institutura sartzean, eskanerrak pantaila bat proiektatzen zuen bere aurrean:

*Aurrerapen Indizea: 9,4.*

*Nibel Emozionala: optimoa.*

*Sistemaren Bateragarritasuna: altua.*

Anerentzat emaitza horiek segurtasunaren seinale ziren. Dena kontrolpean zegoela, perfekzioa lor zitekeela eta haien bizitzak onak izango zirela baieztatzen zuen.

Heliosek ez zuen zigortzen. Moldaketa ikusezinak egiten zituen, ikasle bakoitza bertsio eraginkorrenera gidatzen zuten zuzenketa isilak.

Ikasle hoberenak modu ezberdinetan nabarmentzen ziren. Oihana sailkapenekin obsesionatuta zegoen, bere identitatea horretan oinarritzen zuen. Jonek, aldiz, dena ebaluatzen zuen ezer egin aurretik: arriskuak, probabilitateak, ondorioak...

Beste batzuek, formula konplexuak memorizatzen zituzten edo emaitzak aurreikusten zituzten zailtasunik gabe, supergizakiaren mugan zegoen talentuarekin.

Iker, berriz, desberdina zen. Eserlekuan ezinegonak jota zegoen, deseroso bozgorailuetatik ateratzen zen soinuaren eraginez. Zerbait ez zegoela ondo adierazten zuen etengabe. Anek ezin zuen ulertu. «Batzuei gehiago kostatzen zaie egokitzea», pentsatu zuen.

Aneren egunak Jantoki Nagusian hasten ziren, gun e zabal eta isil batean. Mahaiak zehaztasun milimetrikoz lerrokatuta zeuden, eta ikasle bakoitzak janari zehatza jasotzen zuen, metabolismoa, jarduera eta egoera emozionala kontuan hartzen zituzten algoritmoek kalkulatuta.

Irakasleek diskretuki kontrolatzen zituzten ikasleak, soinu-frekuentziak egokituz lasaitasuna eta kontzentrazioa mantentzeko.

Lehenengo klaseetan Ane pozik sentitzen zen sistemak akatsak gertatu aurretik nola zuzentzen zituzten ikustean. «Hau zaintza da, hau ordena da», uste zuen.

Hala ere, zerbait arraroa nabaritzen hasi zen. Oihana zenbakiekin harrapatuta ikusten zuen, eta Jon etengabe hotz eta kalkulatzailer. Haien talentua ikusgarria zen, baina zerbait falta zela sentitzen zuen: sorpresa une bat. Irribarre guztiak berdinak ziruditen, keinuak neurtuegiak ziren, eta perfekzioari zerbait falta zitzaiola pentsatzen hasi zen.

## 2. Erresistentziaren aurkikuntza

Egun batean, simulazio kognitibo saio batean, Anek Iker eta beste ikasle batzuk bilduta ikusi zituen B blokean, eskolako gun e zahar batean. Araua argia zen: edozein desbideratze berehala salatu behar zen.

Baina jakin-min pixka bat izaten hasi zen, lotsatia. Zerbait gehiago bazegoen? Heliosek guztiz kontrolatzen ez zuen zerbait? Zalantza txiki baina arriskutsu hori bularrean geratu zitzaion, eta ezin izan zuen alde batera utzi.

Gau hartan, bere logelako pantailaren aurrean, zalantzan egon zen. Salaketa egitea bere betebeharra betetzea eta perfekzioa babestea zen. Baina, Ikerren begirada eta larritasuna ez zitzaion burutik kendu. Azkenean, txostena bidali zuen, bere burua justifikatuz: «Ez zaituztet traizionatzen, babesten zaituztet». Baina, nahi gabe, zalantza sortu zuen bere barruan, ezabatu ezin zitekeen ideia bat.

Erreakzioa berehalakoa izan zen. Egonkortasun Kolektiboko Saioan, zuzendariak lasaitasunez adierazi zuen:

—Erresistentzia-talde bat detektatu da. Ikasle batzuk zuzenduak izango dira oreka mantentzeko.

Ane harro sentitu zen: sistemak funtzionatzen zuen. Irakasleek Iker eta besteak eraman zituztenean, Ikerrek haserre eta ulermen nahasketa batekin begiratu zion, Anek ulertu ezin zezakeena.

«Geroago ulertuko dut», pentsatu zuen, zalantza barruan hazten ari zitzaiola. Heliosek ez zuen irakasten; findu, moldatu eta aurreikusi ezin zena ezabatu egiten zuen. Lehen aldiz, Anek perfekzioa zalantzan jarri zuen: denek sentitzen zutena zoriona zen, ala arazo eza besterik ez?

Iker Potentzial Handiko Desbideratze Kognitibo gisa sailkatu zuten. Horrek esan nahi zuen ezin zela guztiz ezabatu. Heliosek ez zuen talentua zaborretara botatzen; birziklatu egiten zuen.

Ikerren zuzenketa selektiboa izan zen: emozioen ezabapen zorrotza eta jokabideen egokitzapena. Sistemak bere arazoa ez zuen intelektualtzat hartu, emozionaltzat baizik.

Hori izan zen Heliosen akats garrantzitsuena.

Ikasgelara itzuli zenean, Anek ia ez zuen ezagutu. Bere jarrera perfektua zen. Bere erantzunak, zehatzak. Bere errendimendua, askoz hobea. Baina, bere begirada hutsik zegoen. Hala ere, noizean behin, bere begietan bizia topatu zitekeen, ia hautemanezina. Heliosek bazekien emozioak nola manipulatu, baina ez zekien zer egin zalantza logiko eta ondo eraiki batekin.

Iker ez zen berehala itzuli erresistentziara. Lehenik itxurak egiten ikasi zuen. Perfektua izaten. Arrastorik utzi gabe pentsatzen.

Erresistentziak ez zuen berreskuratu nor zen gogoratzen zuelako bakarrik, baizik eta sistema baino hobeto nabigatzen ikasi zuelako.

### 3. Gonbidapena

Orduan lortu zuen Ikerrek harekin harremanetan jartzea. Txosten digitalen barruan mezu ezkutuak jarriz egin zuen, Ane bakarrik sar zitekeen leku batera, bere posizio

pribilegiatuari esker. Hitz bakoitza kontu handiz idatzita zegoen, errendimendu datuekin eta ebaluazio arruntekin nahastuta, ia hautemanezina bilatzen ez zekien edonorentzat.

—Ulertu nahi baduzu, etorri zazpietan B blokera. Alertarik ez.

Beldurra jakin-minarekin nahastu zitzaion. «Aurkitzen banaute, betiko ezabatuko naute», pentsatu zuen. Baina, Heliosek zer ezkutatzen zuen ulertzeko beharra, egia ulertzeko beharra, edozein beldur baino indartsuagoa izan zen.

Gau hartan ia ez zuen lorik egin. Bere buruan ibilbideak, patruila ordutegiak, sistemaren balizko hutsegiteak erreparatu zituen. Urrats bakoitza planifikatuta zegoen. Soinu maiztasunak etengabe gogorarazten zion ordena zaintzen ari zela, Heliosek bere ondoan lo egiten eta arnasten zuela, edozein akatsen zain.

B Blokera iritsi zenean, bihotza taupaka ari zitzaion. Espazioa erdi abandonatuta zegoen: argiak itzalita, hautsez betetako panelak eta institutuaren soinu-maiztasunarekin asko kontrastatzen zuen isiltasuna. Han, iluntasun eta isiltasunean, ikasle talde bat zegoen bilduta.

Ikerrek ez zuen berehala hitz egin. Segundo batzuk begira geratu zitzaion, ez bere egonkortasun emozionala ebaluatzen ari balitz bezala, baizik eta neurtzeko zailagoa den zerbait.

—Badakizu zergatik ez ninduen Heliosek ezabatu?— galdetu zion azkenean.

Anek ezetz egin zuen buruarekin. Mezua jaso zuenetik erantzun asko pentsatu zituen, baina ez zegoen prest galdera horretarako.

—Ezin zutelako— jarraitu zuen. —Ez eskuzabalak zirelako. Nola egin ez zekitelako.

Ane harrituta gelditu zen. Horrek ez zuen zentzurik harentzat.

—Sistemak ez du huts egiten— erantzun zuen automatikoki. —Hemen bazaude, funtzionatu duelako da.

Ikerrek irribarre egin zuen.

—Hori pentsatu nuen zuzentzera bidali ninduten aurretik.

Panel itzalieta batera hurbildu eta datu-segida bat proiektatu zuen. Errendimendutxostenak, egonkortasun-grafikoak, bateragarritasun-ehunekoak ziren. Anek ezagutu zituen: bereak ziren. Eta Oihanarenak. Eta Jonenak.

—Begiratu arretaz— esan zuen Ikerrek. —Benetan desberdintasunik ikusten al duzu gure artean?

Anek aztertu zituen. Kurbak forma desberdinetakoak ziren, baina emaitza berdinak. Denak puntu berera eramaten zuten.

—Efizientzia da—, esan zuen. —Optimizazioa.

—Konbergentzia da—, zuzendu zuen. —Ez gara hobetzen. Berdindu egiten gara.

Hitz horrek min handia egin zion Aneri. Konbergentzia. Ezin zuen gehiago aguantatu. —Ez da gauza txarra—, erantzun zuen. —Akatsak saihesten ditu. Sufrimendua saihesten du.

Ikerrek begirada zorrotza bota zion.

—Eta nork erabakitzen du zer den akatsa?

Anek ahoa ireki zuen erantzuteko, baina ez zen ezer atera. Inoiz ez zion bere buruari galdera hori egin.

—Zuzendu nindutenean—, jarraitu zuen Ikerrek, —ez zituzten nire ideiak ezabatu. Nituen erreakzioak ezabatu zituzten. Nire angustia, nire zalantza, nire inpultsuak kendu zizkidaten. Baina, galderak hor geratu ziren—. Orain, aldiz, ez zuten minik egiten.

Eskua bularrean jarri zuen.

—Eta hori izan zen txarrena—. Anek hotzikara sentitu zuen.

—Minik ematen ez badio—, esan zuen Anek, —funtzionatzen du.

—Ez—, erantzun zion lasai. —Minik ematen ez badio, ez du gehiago axola.

Isilunea ezarri zen berriro bien artean. Anek zerbait bere barnean apurtzen hasi zela sentitu zuen.

—Heliosengan konfiantza duzu—, jarraitu zuen Ikerrek. —Horregatik idatzi nizun. Ez nuen haserre dagoen norbait bilatzen. Benetan sinesten duen norbait bilatzen nuen.

—Nik...— Ane zalantzan zegoen. —Salatu zaituztet.

—Badakit.

Erruak gogor jo zion.

—Eta, hala ere, oraindik hemen zaude—, adierazi zuen.

—Heliosek nahi duena zarelako—, esan zuen Ikerrek. —Eraginkorra. Egonkorra. Konbentzitu—. Isilune bat egin zen.

—Eta, hala ere, oraindik hemen zaudelako—. Esaldi horrek Aneren defentsak hautsi zituen. Benetan, zergatik zegoen han oraindik? Sistemak ondo funtzionatzen zuela sinesten bazuen, zergatik ez zuen alde egin?

—Ez dut sistema suntsitu nahi—, esan zuen, ia erregutuz. —Funtzionatzen du. Jende asko salbatu du—. Horren atzean beste egia bat zegoen, ordu arte ausartu ez zena onartzera: funtzionatzea ez zela nahikoa.

Ikerrek baietz egin zuen buruarekin.

—Guk ere ez dugu suntsitu nahi. Segundo batzuk itzali nahi dugu bakarrik.

—Zergatik?

—Ba, denek gogoratu dezaten Heliosek irakatsi ezin dezakeen zerbait.

—Zer?

Iker zalantzan egon zen erantzun aurretik.

—Pentsatzeak min egiten duela. Aukeratzea nekagarria dela. Akatsak egiteak ondorioak dituela.

Begirada zorrotza bota zion.

—Eta, hala ere, merezi duela—. Anek begiak itxi zituen. Lehen aldiz, maiztasunen urruneko soinua jasanezina zen.

Ez zuen laguntzea erabaki egun hartan.

Ez hurrengoan ere.

Aste batzuetan, Ikerrek ez zuen presionatu. Zirrikitu txikiak utzi zituen besterik gabe: txostenetako galderak, adibide minimoak, isilune estrategikoak. Ane lehen baztertu zuena ikusten hasi zen: erantzun berdinak, irribarre hutsak, jaio aurretik zuzendutako sormena.

Goiz batean, eskanerlean bere emaitzak ikustean, ez zen eroso sentitu.

Beldurra sentitu zuen.

Eta orduan ulertu zuen Helios ez zela hartaz arduratzen. Ordezkatzen ari zela. Gau hartan B Blokerak itzuli zen.

—Esaidazu zer egin behar dudan— esan zuen.

Ikerrek ez zuen irribarrerik egin.

Baietz egin zuen buruarekin.

Erresistentziaren prestaketek asteak iraun zituzten, entsegu bakoitza zehaztasun handiz planifikatuz. Ane Heliosen kontrolean zentratu zen, sistemaren mugimenduak ikasiz eta detektatua izan gabe lan egiten. Arriskua handia zen, baina, lehen aldiz, benetan bizirik sentitzen zen, obedienciaren ordez askatasunak gidatzen baitzuen.

Aukeratutako egunean tentsioa nabaria zen. Ane kontrol-gelan sartu eta protokoloa aktibatu zuenean, Heliosen soinua eten egin zen. Bat-batean, ikasleen emozio zanzpatuak askatzen hasi ziren: nahasmena, beldurra, barreak, negarrak; askatasunaren lehen sentipena. Une labur horretan, inperfekzioa eta emozioa bizi egin zituzten, zuzenketarik gabe, kontrolrik gabe.

Segundo gutxi batzuk besterik ez ziren izan.

Sistema berriro martxan jarri zenean, maiztasunak itzuli egin ziren. Ikasleen aurpegiak berriro baretu ziren, keinuak neurtzen, irribarreak egokitzen. Ordenak bere lekua berreskuratu zuen, Heliosek beti egiten zuen bezala.

Anek atxilotu zutenean ez zuen aurka egin, bazekien zer zetorren, eta bazekien une labur horrek atzera itzultzeko aukerarik ez zuela ere.

Kontrol-panelean, inork eskatu gabe, azken txosten bat sortu zen automatikoki:

Anomalia puntual bat detektatua.

Kausa: kalkulaezina.

Ebazpena: ezinezkoa.

Ez zen alarmerik piztu. Ez zen protokolorik aktibatu. Ez zen zuzendaritzako oharrik bidali.

*Baina. lehenengo aldiz, Heliosek ez zuen jakin zer zuzendu.*

## MIKROIPUINAK

**Ekaitz Garcia Bernal (14 urte)**

*Baloi lodia*

D kategoria

**Helene Seges Sobrido (14 urte)**

*Gaua*

D kategoria

**June Inchausti Fraile (16 urte)**

*Betiko albistek*

E kategoria

**Maria Teresa Benegas Ayuso (16 urte)**

*Deialdia*

E kategoria

**Noa Arrizabalaga Eguzkiza (16 urte)**

*Aurreko eserlekua*

F kategoria

## Baloi lodia

Atzo ogia erosi nuen, etxera nindoala. Futboleko kantxatik pasatu nintzen eta Joseph jolasten ikusi nuen. Gerturatu nintzen eta baloia oso fuerte jo nuen. Baloia oso urruti joan zen.

Baloiaren bila joan ginen eta beste ostikada bat eman nion, orduan, Josephek gelditzeko esan zidan, baina nik ez nion kasurik egin.

Beste ostikada bat ematean baloia puskatu egin zen. Baloia deitzen nion Jonathani, lodia zegoelako.

## Gaua

Eguna joan egin da, baina nik ez dakit nora joan. Izarrak zeruan dabiltza dir-dir, dar-dar. Saguzarrak ikusten dira alde batetik bestera hegan, ea non bukatuko duten gau honetan. Itsasoa dago aurrera eta atzera, nork esango ote zuen abeslaria zela. Oihuak entzuten dira herriko plazan, gazteak abesten dabiltza elkarrekin dantzan. Hontza atera da enborrera, bere begiekin ingurua aztertzeraz. Juantxo entzuten da etxean zurrunga, eta bere ondoan erlea burrunba. Han bertan dago itsasargia, itsasontziek egiten duten soinua ikusteko agian. Maria Teresa dago komunean, abesbatzan egongo balitz bezala lanean. Jada eguzkia atera da ekialdetik, ea zer gertatzen den gauean eguzkia sartzen denean mendebaldetik.

## Betiko albisteak

Gosaltzeko unean irratian bost umeren desagerpena salatzen dabilta. Irratia itzaltzen dut eta etxetik ateratzen naiz. Bizilagunak kezkatuta daude eta ez diete haien umeei etxetik irteten uzten.

Betiko auto-ilarak daude bidean eta berandu iritsiko naiz. Jaistean, etxeko fakturretan pentsatzen hasten naiz: kafe bat hartzen dut enpresaren kafe-makinan eta lanean hasten naiz.

Lankideek nirekin hitz egiten dute. “Ey, Mike. Entzun al dituzu albisteak? Beste bost ume desagertu dira.” Esaten didate. Ordenagailutik bista kentzen dut: “Gehiegi, bai, baina horretan pentsatzeak ez du ezertan laguntzen.” Diot nik.

Etxera itzuli naiz. Eskailerak igotzen ditut eta nire aitaren logelaren atea irekitzen dut. Odolez blai dago eta umeen gorputzez bete. Ate ondoan animatroniko batzuk daude.

“Gabon, aita. Janaria ekarri dizut”. “Gabon, Mike. Eskerrik asko.”

## Deialdia

Sukaldetik datozen oihuengatik esnatzen naiz. Gurasoak liskar batean daude. *Negu* bilatzen dut, nire untxi peluxea, baino ez dut aurkitzen. Ohe azpian egongo da, pentsatzen dut. Ohetik jaiki eta azpian begiratzen dut: hutsik.

Gelatik ateratzean garrasiak ozenagoak bihurtzen dira. Baina badakit zer egin behar dudan, telebistan ikusi nuen eta.

Etxeko telefonoa hartu dut eta 112ra deitu.

- 112. Zein da zure larrialdia?- ahots batek erantzuten du.
- Kaixo, nire gurasoak borrokatzen ari dira eta ez dakit zer egin.
- Lasai egon. Oraintxe bertan laguntza bidaltzen ari naiz. Esan, non daude?
- Sukaldean. Garrasi asko entzuten da eta platerak hausten ari dira.
- Eta, badakizu zergatik ari diren oihuka?
- Bai, nire heriotza bata-besteari leporatzen ari dira.

## Aurreko eserlekua

Martxoak 11, asteazkena.

Egunero bezala 07:00etan jaiki eta dutxatzen naiz. Hortzak garbitzera noanean, berriro ere hortzetako pasta erosteaz ahaztu naizela konturatzen naiz.

Lanera joan aurretik, nire anaiarekin kafetegian geratu naiz, asteazkenero bezala. Iristean bera jada han dago eta iritsi bezain laster berriketan hasten gara. Nire egunerokoak kontatzen dizkiot, nire berri onak, nire penak, guztia azalertzeko gai naiz berarekin. Gehien laguntzen didan pertsona da.

Poltsa erori, eta jasotzeko makurtzen naiz. Altxatzerakoan, bakarrik aurkitzen naiz, ni eta aurreko eserleku hutsa gaude soilik. Orduan bihotza zeharkatu balidate bezala sentitzen naiz. Gutxitan gogoratzen dut eserlekua hutsik dagoela, askoz errazagoa baita goizero ohetik altxa eta hortzetako pasta soilik falta zaidala pentsatzea.

**Noa Arrizabalaga Eguzkiza / F kategorian, Mikroipuina, IRABAZLEA**

## Sarituen Zerrenda

K	Egilea	Izenburua	Ikastetxea
C	NAHIA SANCHEZ ITURRIA	NIRE EGUNEROKO BIZITZA	Mundaiz Ikastetxea
C	ASIER OSKILA ETXEGIA	HERIOTZA	Zurriola Ikastola
D	ANE IBARBURU ASENSIO	ISILTASUNAREN ARNASA	Axular Lizeoa
E	MARIA TERESA BENEGAS AYUSO	TXIKIA	Axular Lizeoa
B	UNAI ILZARBE ELORZA	DIEGO HASERRETU EGIN DA	Aitor Ikastola
C	IBAI ACHA CUESTA	MUSEOAREN LAPURRETA	Axular Lizeoa
D	JUNE EGUES MUERZA	ERREGEAREN ERORKETA	Axular Lizeoa
D	IRATI SALSAMENDI ARTETXE	EGUNSENTIA	Axular Lizeoa
E	ERIK AGIRRE GOIENETXE	ASPERTUTA	Zurriola Ikastola
B	AIMAR PINEDA LABAKA	NIRE BIHURRIKERIAK	Zurriola Ikastola
C	JULEN MARIN LACARTA	EGUN TXARRA	Zurriola Ikastola
D	HARRI ARIN GRIJALBA	IKASTOLA EGUNAK	Zurriola Ikastola
B	ANE GOMEZ BELDARRAIN	ABENTURA HODEIEN ARTEAN	Zurriola Ikastola
C	JULENE SANZ MALVIDO	AMODIOZKO KANTUAK	Amara Berri Ikastetxea
D	JULEN SAROBE CASADO	EGARRIA	Antigua-Luberri BHI
E	CARLOS GARCIA PENHA	NIRE AITONAREN AULKIA	La Salle San Luis Ikast.
F	KERMAN ETXEBARRIA MAIZ	ALGORITMOEN EZGAITASUNA	Santo Tomas Lizeoa
F	KAYA GARIKANO ARRIEN	MUDA	Zubiri-Manteo BHI
D	HELENE SEGUES SOBRIDO	GAUA	Herri Ametsa Ikastola
D	EKAITZ GARCIA BERNAL	BALOI LODIA	Lauaizeta Ikastola BHI
E	JUNE INCHAUSTI FRAILE	BETIKO ALBISTEAK	Axular Lizeoa
E	MARIA TERESA BENEGAS AYUSO	DEIALDIA	Axular Lizeoa
F	NOA ARRIZABALAGA EGUZKIZA	AURREKO ESERLEKUA	Zurriola Ikastola

## Aipatuen Zerrenda

Mota	K	Egilea	Izenburua	Ikastetxea
Olerkia	D	UHIN ARANBURU GARCIA	ANIMALIEN LASTERKETA	Orixeko Ikastola
Komikia	B	IRATI ZULAIKA OLEAGA	DANTZA ISTRIPUA	Aitor Ikastola
Komikia	B	IORITZ ROBLES RICO	KORRIKALARIAK	Herri Ametsa Ikastola
Komikia	C	LUCIA BENEGAS AYUSO	LO EGIN NAHI ZUEN TXORIA	Axular Lizeoa
Komikia	E	KEIRA DELGADO PEDRAZA	NI NAIZ BERAIEK IXILATASUNA	Zurriola Ikastola
Bertsoa	C	ASIER OSKILA ETXEGIA	ZAINDU DEZAGUN NATURA	Zurriola Ikastola
Bertsoa	C	LEIRE DE SANTIAGO ALIJA	GALTZERDITXO BIKOTE GABE	Zurriola Ikastola
Bertsoa	D	HODEI PINEDA LABAKA	PIRAGUISTA BERRIAREN. KOMERIAK	Zurriola Ikastola
Ipuina	B	LUCA SANTANA ZADIKIAN	GAU BELTZA	Sagrado Corazon. Mundaiz Ikastetxea
Ipuina	B	LAIA IRIONDO TAPIA	MAMUEN LURRALDEA	Zurriola Ikastola
Ipuina	B	IRATI BIKANDI ARROITA	IKERREN MISTERIOA	Zurriola Ikastola
Ipuina	C	SARA ROMO SANZ	LAKUAREN ISLADA	Amara Berri Ikastetxea
Ipuina	C	DANEL MONTES ECHEVERRIA	ORDENAGAILUA GREBAN DAGO	La Salle Donostia Ikastetxea
Ipuina	C	NAHIA ALDEKOA ARRANZ	ZINTZILIK	Sagrado Corazon. Mundaiz Ikastetxea
Ipuina	C	KATTALIN FERNANDEZ ANIA	ETXEAN BAKARRIK	Orixeko Ikastola
Ipuina	D	EKHI ANABITARTE ARTOLA	EPIDEMIA FALTSUA	Antigua-Luberri BHI
Ipuina	F	ANNE EIZMENDI GOMEZ DE BONILLA	ISPILUEN ETXEA	Santo Tomas Lizeoa
Ipuina	F	OIER TORRES COSTAS	INFERNUA LURREAN, KOTOI. ARTEAN	Zurriola Ikastola
Ipuina	F	MAIDER GOIKOETXEA TOQUERO	GOSEA	Zurriola Ikastola
Mikroipaina	D	ARHANE ITXASO YETANO	ERRONKA	Usandizaga-Peñaflorida BHI
Mikroipaina	D	UDANE UBARRETXENA REKARTE	ITZALA	Arantzazuko Ama BHI
Mikroipaina	D	SARA VALLEJO SANTACANA	BUELTAKA	Arantzazuko Ama BHI
Mikroipaina	D	NAGORE SAN JOSE RUIZ	GAUA	Arantzazuko Ama BHI
Mikroipaina	D	ITSASO GRAS MIKEO	ARRAKALAK	Lauazeta Ikastola BHI
Mikroipaina	D	ALAIA BOUJMAL CHAOUKI	BIHAR ITZULIKO NAIZ	Zubiri-Manteo BHI
Mikroipaina	E	KATTALIN MENA MARTINEZ	AMONAREN SALDA	Arantzazuko Ama BHI
Mikroipaina	F	ESTIBALITZ ZUBELDIA. GONZALEZ DE HUEBRA	ZENBAT FALTA DA	Axular Lizeoa

**37. edizioan parte hartu duten  
ikastetxeen zerrenda**

Aiete Ikastetxea  
Aitor Ikastola  
Amara Berri Ikastetxea  
Antigua-Luberri BHI ikastetxea  
Arantzazuko Ama BHI ikastetxea  
Axular Lizeoa  
Hegoa Ikastetxea  
Herrera Ikastetxea  
Herri Ametsa Ikastola  
Ikasbide Ikastola  
Intxaurrondo Ikastola  
Jakintza Ikastola  
La Salle Donostia Ikastetxea  
La Salle-San Luis Ikastetxea  
Lauaizeta Ikastola BHI  
Orixe Ikastola  
Mundaiz Ikastetxea  
San Ignacio (jesuitak) Ikastetxea  
Santo Tomas Lizeoa  
Usandizaga-Peñaflorida BHI ikastetxea  
Zubiri-Manteo BHI ikastetxea  
Zurriola Ikastola

**HITZ EGIN**  
**MAIITE**  
**DUZUN**  
**HORI!**

**Donostiako Ikasleen Euskara Batzordeen VII. Topaketa**



**DONOSTIA**  
**SAN SEBASTIÁN**  
**Euskara**